



## **MARTIN GARITANO ALDUN NAGUSIARI LARRAULGO ESKOLAREN EGOERAREN BERRI EMAN ZAIO**

### **EGUNA: Maiatzak 16, asteazkena**

Martin Garitano Gipuzkoako Aldun Nagusia eta Zigor Etxeburua Euskara Zuzendaria Larraulen izan dira, herriko eskolaren egoeraren berri jakiteko.

Goizeko 10:00etan Larraulgo plazan egin diete harrera Xabier Mujika alkateak eta udal zinegotziek, Mikel Olano Eskola Txikien Koordinadorako lehendakariak eta Jexux Mari Irazu eta Estitxu Eizagirre Larraulgo Guraso Elkarteko kideek.

### **ESKOLARA BISITA**

Ondoren Larraulgo eskola bisitatu dute. Guraso Elkarteko kideek eraikineko azpiegituren berri eman diete, baita eskolari lotuta Larraulen martxan jarri dituzten zerbitzuen berri ere:

- Haurreskola. Partzuergoaren zerbitzua dena.

- Goizeko zaintza zerbitzua. Doakoa da, Guraso Elkarteak autofinantzatzen baitu, guraso guztien borondatezko lanari esker. Izan ere, Larraulgo gurasoek eskola garbitzeko lana egiten dute egunero. Hala udalak, garbiketa enpresa bat kontratatu beharrean, Guraso Elkarteari ordaintzen dio eskola garbitzeko lan hori, eta Guraso Elkarteak bere irabazia eskola zerbitzuan inbertitzen du ostera ere. Besteak beste, hortik finantzatzen du goizeko zaintza zerbitzua. Psikomotrizitate gela ere Guraso Elkarteak hornitu zuen osoki.

- Baratzea

- Jangela zerbitzua. Herriko ostatuan eskaintzen da. Otorduak bertako sukaldean prestatzen dira, eskolarentzat kalitatezko zerbitzua eskainiz. Herriko ostatua egonkortzeko ere garrantzitsua da eskolako jangela bertan ematea.

Ikasgela barruan, Larraulgo irakasleek Eskola Txikiak pedagogiko dituzten ezaugarriak azaldu dizkiote Aldun Nagusiari.


- Adin ezberdinetako haurrek elkarrekin ikasten dute gelan, bakoitzaren maila eta erritmoa errespetatuz.

- Elkarreragina eta lankidetzak (kooperazioa) sustatzen dira. Aniztasuna da azpimarratzen den balorea, elkarbizitzarako baloreak lantzeko aukera bikaina eskainiz.

- Ikastalde txikiak izaten dira.

- Eskolako ateak zabaldu eta herria zein herritarrak baliatzeko aukera handiak ematen ditu, herriaren nortasuna eta kulturaren transmisioa sustatuz.

- Irakasle eta gurasoen arteko harremanerako eta lankidetzarako baldintzak errazten ditu.



## **UDALETXEAN BILERA**

Eskola ezagutu ostean, Aldun Nagusiarekin eta Euskara Zuzendariarekin udaletxeko pleno aretoan bilera egin dute udal ordezkariak, Eskola Txikien Koordinadorako Lehendakariak eta Guraso Elkarteko ordezkariak, Larraulgo eskolaren ibilbidea eta egungo egoera azaltzeko.

### **Eskola zerbitzua irekitzeko egin den ibilbideaz**

Xabier Mujika alkateak eta Guraso Elkarteko ordezkariak Larraulen eskola zerbitzua jartzeko egindako bidean une nagusiok azaldu dizkiote:

-2008an zabaldu zen eskola zerbitzua berriz ere Larraulen. 1977ra arte eskola bazuen Larraulek (XIX. mendeaz geroztik). Izatez, bi eskola izatera ere iritsi zen. 1977an itxi zen eskola Larraulen biztanleriak izandako beherakada medio. Orduan eskolako "azken belaunaldia" izan zena, gaur eskolako guraso da. Katea ez etetea lortu da Larraulen.

-2008an eskola zerbitzua berriz ere irekitzea lortu bada, Udalak azken hamarkadaotan herrian biztanleria errekuiperatzeko egin duen politikagatik eta herri bizitza sustatzeko egin den lanagatik izan da.

-Hezkuntza Sailarekin akordioa lortuta, 2008/2009 ikasturtean zabaldu zen eskola zerbitzua Larraulen. Sorrera errazteko, Hezkuntza Sailak Asteasuko Pello Errota ikastetxearen gela izaera eman zion. Eta 2009ko apirilean bertan, Hezkuntza Sailak Larraulgo eskola zerbitzuarekiko konpromisoa berretsi zuen, idatzizko jakinarazpenaren bidez: bertan zehazten zenez, Larraulen urtez urte (belaunaldi zaharrenarekin batera) eskola zerbitzua zabalitzen joango zen, Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte. Gainera, 2010-11 ikasturtean eskola izaera behar zuen hartu. Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarteak Hezkuntza Sailarengandik idatziz jasotako azken erabakia huraxe izan da.

-Jaurlaritzan Gobernu aldaketa emateaz batera, Hezkuntza Sailak aurrez hartua zuen erabakia ez betetzeko asmoa adierazi zitzaion (ahoz) Larraulgo udalari. Hare gehiago: eskola izaera ez emateaz gain, eskola zerbitzua 6 urtera arte murriztu nahi zuten Larraulen.

-Larraulek eskola zerbitzua luzatzeko legezko baldintza guztiak betetzen zituen, bai azpiegituraz, nola ikasle kopuruei dagokienez.

-Parlamentuak bere babesa eman zion Larraulgo eskolari, 12 urtera arteko eskola zerbitzua eman behar zela gehiengoz onartuz (PSOE-k ez beste alderdi politiko guztiek eman zioten babesa Larraulgo eskolari).

-Arartekoak ere Larraulen eskola izatearen aldeko txostena egin zuen.

-Eskola Txikietako Gurasoen Koordinakundearen eta EHIGE-ren babesa izan du, sorreratik, Larraulgo eskolak.

**Gaur egun 8 urtera arteko zerbitzua dago Larraulen, gela izaeraz.**



## Egungo helburuak

Larraulgo udalak eta Guraso Elkarateak Larraulen 12 urtera arteko eskola zerbitzua nahi dutela berretsi diote Aldun Nagusiari.

Horretarako legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dira Larraulen:

**-21/2009 dekretuak (otsailaren 3koak)**, halaxe arautzen du: **2-12 urte bitartean, gutxieneko ikasle kopurua 18 ikaslekoa da. Larraulen 2-8 adin tartean (4 ikasturte gutxiago izanik oraindik) 25 ikasle daude jadanik.** Gainera, dekretuak herri batean zerbitzua abiatzeko denbora-proiektzio bat ere eskatzen du: *"Ikastetxe edota udalerrri batzuek, Haur Hezkuntzako edota Lehen Hezkuntzako eskaintzarik ez badute, eskaintzari hasiera ematea proposatu ahal izateko gutxienez 12 ikasle eduki behar dituzte, elkarren segidako hiru irakasmaitetakoak". Larraulen 15 ikasle daude,* elkarren segidako hiru irakasmaitetan.

-Beharrezko azpiegiturak ere baditu Larraulek. Eskola eraikina udalak jarria da.

Legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzeaz gain, Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarateak urteotan eskolaren aldeko konpromiso argia erakutsi dutela adierazi diote Aldun Nagusiari: Udalaren eta Guraso Elkaratearen aldetik inolako utzikeriarik ez dagoela, alderantziz, urtez urteko auzolana dagoela zerbitzu horren atzean:

-Larraulgo Udalak bere herriko eraikina jarri du eskolarentzat. Mantenu gastuak ere udalak ordaintzen ditu.

-Larraulgo Guraso Elkarateak lana egiten du, herritarrek bertako eskolara eraman ditzaten beren seme-alabak: eskola ezagutzeko "ate irekien" eguna antolatzen du Pello Errota ikastetxearekin batera. Herriko gurasoek seme-alabak bertara ekarri ahal izateko beharrezko zerbitzuak bermatzeaz ere arduratzen da Guraso Elkaratea: zaintza zerbitzua eta jangela zerbitzua. Guraso Elkarteko familia guztiek egiten duten borondatezko lanari esker ateratako diruaz, eskolan beharrezko azpiegitura eta zerbitzuak ere finantzatzen ditu Guraso Elkarateak.

Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarateak Hezkuntza Sailarekin lankidetzarako jarrera izan dutela beti nabarmendu dute, eta orain ere Hezkuntza Sailarekin elkarrikeria eta lankidetzeta nahi dutela.

**Ikasturte berria hasi aurretik Hezkuntza Sailarekin bildu nahi dute, eskola zerbitzua beste ikasturte bat gehiago luzatzeko zer oztopo edo arazo dauden aztertzeko eta horiei konponbideak elkarrekin bilatzeko.** Urtez urte, zerbitzua ikasturte bat gehiago zabaltzea da Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarateak nahi dutena, ahalik eta 12 urtera arte iritsi arte.



## **HEDABIDEEN AURREAN ADIERAZPENAK**

Larraulgo eskolaren egoerari buruzko bilera egin ostean, partaideek adierazpen hauek egin dituzte hedabideen aurrean:

### **Mikel Olano (Gipuzkoako Eskola Txikietako Gurasoen Koordinakundeko Lehendakaria)**

Gipuzkoako eskola txikiak Foru Aldundiaren babesa sentitzen dutela nabarmendu du, eta eskola txikiak herrian duten garrantzia adierazi du: heziketa emateaz gain, herri proiektua direlako. Herri txikien biziraupenerako elementu nagusia.

### **Xabier Mujika (Larraulgo alkatea)**

Aldun Nagusiak bileran azaldutako babesa eta Larraulgo eskola sustatzeko konpromisoa eskertu ditu Larraulgo alkateak. Egun herrian 8 urtera arteko eskola zerbitzua izanagatik, pausoz pauso 12 urtera arteko zerbitzua lortzerainoko bidean irmoki jarraituko dutela adierazi du, Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarteak, legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztenez zerbitzu hori herrian izateko.

### **Martin Garitano (Gipuzkoako Aldun Nagusia)**

Larraulgo eskolari bere babesa adierazi dio, eta Hezkuntza Sailari dei egin dio 12 urtera arteko eskola zerbitzua bermatu dezan. Gipuzkoak herri txikiak behar dituela adierazi du Aldun Nagusiak, eta herri txiki horien bihotza edo herri proiektu nagusietakoa eskola dela.

### **Zigor Etxeburua (Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria)**

Euskara Zuzendariak herri txikiok euskarari egiten dioten ekarpena azpimarratu nahi izan du; Euskal Herriak eta hiri zein herri handiek, behar dituztela herri txikiok bizirik, euskararen biziberritzean ematen dutenagatik.

### **Estitxu Eizagirre (Larraulgo Murgil Guraso Elkarte)**

Eusko Jaurlaritzak Eskola Txikien Festa egiteko urtero eman izan duen dirulaguntza aurtengoan ukatu egin duela adierazi du, eta hasieran kolokan jarri zela aurtengo Festa nahi bezalakoa izango ote zen. Nabarmendu du, Gipuzkoako Aldundiak urtero ohi duenez laguntza eta babesa eman izanari esker, eta era berean, urteroko beste hainbat eragilek bere laguntzari eutsi dietelako eta Asteasuko zein Larraulgo enpresek emandako babesagatik, posible izango dela ekainaren 3ko Festa 25. urteurrenak merezi bezalakoa izatea.

**\*Hedabideen aurrean egindako adierazpenak, ikusgai:  
[www.larraul.eskolatxikiak.org](http://www.larraul.eskolatxikiak.org)**



## **Eskola Txikien Festak 25 urte betetzen ditu: ekainaren 3an Larraulen**

Egitaraua

10:00 Txupinazoa, plazan

10:00-12:00 Eskulanak (8-12 urtekoentzat), Hezkide eskolan.

11:30 Pirritx eta Porrotxek ere 25 urte! Plazan

13:00 Ekitaldi Nagusia, Urbeltza plazan

14:00 Euskolabel bazkaria, frontoian

15:00 Zezenak eta pottokak, Otsozabal gunean

17:00 Kupela Taldea, *plazan*

*Egunean zehar:*

-Puzgarriak, Zabaletako zelaian

-Eskola Txikien Dokumentalaren proiektzioa eta erakusketa, eskolan

-Larraulgo eskola zaharrari buruzko erakusketa, Ekomuseoan.

-Idiak gurdiaekin

-Bolatokia

Komunikazioa – harremanetarako

Ixiar (688 643 608 / [eskolatxikiak2012@gmail.com](mailto:eskolatxikiak2012@gmail.com))

